

Herririk Herri |3|

Ostalariak eta udala terrazen araudia-
ren aldaketak adosten Durangon



Berbaz |8|

J.Arteaga: "Hauteskundeetan aukera
politiko denak egotea gustatuko litzaidake"

Amalurra |18|

Aurrekoaren arrakasta ikusita, otsailean
beste konpostaje ikastaro bat Berrizen

Gurasoak kezkatuta Maisuen Etxea dela-eta

Zaldibar• Zaldibarko Herri Ikaste-
txeko guraso elkarteak salatu due-
nez, Maisuen Etxea egoera txarrean
dago, "zatika jausten". Udalak ez die-
la kasurik egiten diote, eta urte asko
daramatela etxea botatzeko proiektu-
a gauzatu barik. Udalak erantzun
duenez, eraikina saneatuko dute
orain, eta ekainean jolas-gunea egi-
teko proiektuari ekingo diote. **7**

'Berbertan' ekimen berriaren hiru saio Plateruenean

KULTURA• Euskal Herriko kultur-
gintzari buruz zeresan handikoak
diren sei lagun batu dituzte Duran-
goko Plateruenean lehenengoz egingo
duten *Berbertan* elkarriketa ziklo-
ra. Otsailaren 10ean 20:00etan da
lehenengo hitzordua: Benito Lertxundi
musikaria elkarriketatuko
du Pako Aristi idazleak. **11**

"Erretiroa Elorrion hartzea nahiko nuke"

KIROLA• Euskal Kirol Federazioen
Batasunak antolatutako III. Euskal
Sarietan Oskar Astarloa elorriarrak
jaso zuen errugbiari dagokion oroigarria.
Horrela, 20 urteko ibilbide
oparoa aintzatetsi gura izan diote.
Ohorezko mailako talde askotan
jokatu du, eta Euskadiko zein Espai-
niako selekzioagaz ere gomuta onak
ditu. Hala ere, erretiroa Elorrion har-
tzea gustatuko litzaioke.



Sexu-indarkeriari aurre egiteko protokoloa

> Abadiño, Berriz, Elorrio eta Durangoko
udalek koordinazio protokoloa sinatu dute

> Amankomunazgoak, Ertzaintzak eta
Osakidetzak ere ekimenagaz bat egin dute



Sinadura ekitaldian lau udaletako alkateak eta ekimenean parte hartu duten erakundeetako ordezkariak batu ziren.

15

•Durangaldea

AHTaren desjabetzak sinatu barik
Abadiño, Atxondo eta Elorrion **2**

•Elorrio

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra
onartu du Eusko Jaurlaritzak **4**

•Izurtza

Hiru aisialdi gune egiteko asmoa **6**



Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofizial de Idiomas

MATRIKULA EPEA:

**Otsailaren 11tik
martxoaren 4ra**

MATRIKULA LIBREA
2010-2011

EUSKARA, FRANTSESA, INGELESA,
ALEMANA

MATRIKULA ON-LINE EGINGO DA:
Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal
izango dute, honako webgunearen bidez:

www.eoidurango.net

Zubiaurrea, 1 (DURANGO) • Tel.: 94 681 66 45 - 94 620 33 42



HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

Sexu-indarkeriaren biktimei arreta hobea eskaintzeko protokoloa indarrean

Eskualdeko lau udalek, Amankomunazgoak, Osakidetzak eta Ertzaintzak sinatu dute

Durango, Abadiño, Berriz eta Elorrioko udalek, Ertzaintzak, Osakidetzak eta Durangaldeko Amankomunazgoak sexu-indarkeria jasaten duten biktimei zuzendutako arreta zerbitzua eraginkorrago egingo duen I. Koordinazio Protokoloa sinatu eta indarrean ipini dute. Aurkezpen ekitaldira Maria Silvestre Emakundeko zuzendaria ere etorri zen.

Protokoloaren bitartez, sexu-indarkeria kasuak kudeatzeaz arduratzen diren askotariko erakundearen arteko koordinazioa hobetu gura dute, salaketei erantzun hobea, azkarragoa eta eraginkorragoa eskaintzeko helburuagaz. Izan ere, arlo horretako gabeziak identifikatzeko asmoz egindako diagnostikoan azalera-tuzenez, "berez latza den gertae-

ra sarri eta toki askotan kontatu beharrean aurkitzen ziren emakumeak, ez zegoelako salaketak edo kasuak erakundearen artean lotuko zituen protokolorik", dio Berrizko Berdintasun teknikari Naiara Garatek. Hemendik aurrera, aldiz, sexu-indarkeria salatu duenaren baimena lortuta, jasotako datuak protokoloa sinatu duten erakundeei banatuko zaizkie eta, ondoren, erakundeak eurak ipiniko dira kontaktuan biktimagaz, aukeran dituzten zerbitzuei buruz argibideak emateko.

Egoeraren ezagutza hobea

Era berean, sexu-indarkeriaren biktimen "soslai osatuagoa" lantzea eta "egoera orokorraren ikuspegi zehatzagoa" izatea ahalbidetuko du informazio trukeak eta, oro har, protokoloak. ■ J.D.



Durangoko Elkartegian sinatu zuten dagoeneko indarrean dagoen protokoloa.



Naiara Garate Mantzidor
Berrizko Berdintasun
Teknikaria

Lau udal batuzarete protokoloan.

Berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako biolentziaren kontratu udalen arteko lankidetzaz sustatzea helburu duen Berdintasunaren (Eudelek eta Emakundek bultzatutakoa) sartuta gauden Durangaldeko lau herriak batu gara. Eskualdean aitzindariak gara, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago hainbeste herri eta erakunde batu dituen horrelako beste adibiderik.

Gaitza izan da akordioa lortzea?
Prozesu luzea izan da, bai, baina

oso aberasgarria ere. Azken batean, erakunde bakoitzak zer baliabide zituen eta horiekin zer egin genezakeen erabaki dugu, beti ere, koordinazioerik egokiena bilatzeko asmoagaz.

Protokoloaren garapena zelan zainduko duzue?

Hiru batzorde eratu ditugu ezarpenaren jarraipena egiteko. Horietako batean emakumeekin tratatu zuzena duten eragileak batuko gara, eta prokoloaren gabeziak identifikatzen ahaleginduko gara.

AHTaren desjabetza aktak ez dituzte sinatu

Zundaketak egiteko desjabetzak sinatzera etorri dira ADIFekoak Abadiño, Atxondo eta Elorriora



Udaletxeetan hamarnaka lagun batu ziren trenaren kontra.

Asteon AHTaren dejabetza akta berrien sinadura bertan behera geratu da Abadiño, Atxondo eta Elorrioren. Lurrak behin-behinean desjabetzeko aktak dira oraingoa, eta trenaren lanek dirauten bitartean hainbat azpiegitura egongo lirakeke lur horietan. Aktak udalteez sinatu ez direnez, hurrengo pausua lurjabeak eta udalak Bilbora deitzea izan daiteke.

Abadiñoko alkateak ezin izan zuen udaletxean egon eguaztean ADIFekoak etorri zirenean, eta Elorrioren ez zieten udaletxea zabaldu. Atxondon, udal ordezkariak udaletxean egon ziren, eta uko egin zioten aktak sinatzeari.

Atxondoko kasua

David Cobos Atxondoko alkateak salatu du lurjabeei bidalitako idatzietan "akats legalak" egon direla: "formetan eta edukietan ez dituzte arauak bete, eta legea bete ezean ez dugula ezer sinatuko esan diegu".

Trenaren ibilbide posibleak direla-eta, ezinegon dago Atxondon. Joan zen astean EAJk prentsa ohar batean zera salatu zuen; gobernu taldeak, "trabak ipinita", ibilbidea "bizilagunentzat kaltegarria izatea" lortuko duela. Cobosen iritziz, "Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren bete-beharra da kalte gutxien egiten duen ibilbidea aukeratzeta". ■ A.U.

Santa Ageda koplak kantatzera irtengo du hainbatek egunotan

Durangaldeko hainbat herritan mantentzen den ohitura da bezperan edo egunean kantatzekoa

"Aterik ate ohitura zaharra aurten berritzeko asmoz" dio Santa Ageda kopleto bategi batek. Halaxe irtengo dute bihar eta etzi eskualdeko hainbat herri eta auzotan, koplak zaharrak kantatuz.

Durango ikasleak ikusi ahal izango ditugu asteburuan zehar, eta Elorrioren Iturizoroko elkarteak bultzatuko du ekimena, 19:00etan Lagun-Tokin elkartuta. Batutako dirua Caritasi emango diote. Aba-

Elorrioren Iturizoroko elkarteak bultzatuko du ekimena, 19:00etan hasita

lurretan 16:00etan plazan elkartu ondoren baserriko baserri ibiliko dira

diñon Done Zezili abesbatzak hartuko du lekukoa, 19:30etik aurrera. Lurretan 16:00etan plazan elkartu eta baserrietara joko dute. 18:30 bueltan hurreratuko dira Montoira. Zaldibarren 19:00etan ipini dute hitzordua koralaren egoitzan, eta ohiturari eutsiz alkatearen etxean hasiko dute ibilaldia. Berriz ikasleak ibiliko dira goizean; herritarrek 18:00etan irtengo dute komentutik, eta 21:00etan afaria egingo dute Pedro Juan jatetxean. Otxandion Oihandi abesbatzak 10:00etan ekingo dio kantatzeari, eta Mainondo ikastetxeak ere batuko dira 14:30ean.

Atxondon, Mañarian, eta Mallabian zapatuan ospatuko dute Santa Ageda. 14:00etan hasiko dira Apatan, eta Mañarian 09:00etan. Mallabian Jasokunde eta Mendibil abesbatzak joango dira auzorik auzo. ■ M.O.



DURANGO

Ostalaritza establezimendu-
duetan kalean terrazak ipintzea arautzen duen ordenantza 2005ean ipini zuten indarrean. Tabakoaren Legeak, baina egoera aldatzea eragin du. Taberna askok bezeroek kanpoaldean erre ahal izateko terraza berriak jarri gura dituzte berogailuagaz edo aterpeagaz.

Terrazen araudia egoera berri horretara egokitu guran, ostalariak eta udala hartu-emanean jarri dira. Inigo Carreto + Dendak elkarteak ostalarien arduradunak azaldu duenez, "Durangoko Udalak ordenantzaren aldaketak gurekin egin gura ditu". Gaia merkataritza bultzatzea helburu duen PERCO mahaian aztertzen dabilta. Bilgune horretan +Dendak eta Durango Bai elkarre-
teetako ordezkariak eta Durangoko udal arduradunak biltzen dira. Udaleko teknikariak hasi dira terrazen gaia aztertzen. Hirigintza Batzordearena da azken erabakia.

Ostalarien aholkularia udalagaz araudiaren aldaketak aztertzen dabilela dio +Dendak elkarteak

Kuoten ordainketa

Indarrean dagoen ordenantzagaz beharrezkoa da urtero terrazak ipintzeko baimena eskatzea eta baldintza batzuk betetzea. Baina, Pilar Rios PSE-EEko zinegotziak prentsaurrekoan azaldu duenez, "ostalari askok euren eskaera eta txostena urtero-

urtero udalean aurkeztu arren, udalaren partetik ez dute erantzunik ere jaso oraintsu arte, euren egoera alegala bihurtu delarik". Ondorioz, "ordutik udalak ez du terrazen gaineko zergarik kobratu, eta udaleko diru-kutxak 300.000 euro inguru jasotzeari utzi dio". Egoera horren aurrean, gobernu taldearen "kudeaketa negargarria" salatu dute sozialistek.

Gainera, sozialisten arabera oraintsu hasi dira espedienteak aztertu eta erantzuten: "Zergak lau urteko atzeraeraginezko izaeragaz kobratzeko aukera ahalbidetzen dio ordenantzak udalari, eta horrek esan gura du ostalari askok, bat-batean, faktura handiak jasoko dituztela. Bizi dugun egoera ekonomikoan, erabaki horrek kalte handia eragingo dio enpresari txikiari". Udalak, karga hori errazteko, ordainketa zatikatua eta antzeko aukerak eskaini dituela diote, "baina ez dira nahikoa" euren ustez. Ordainketa ordenantza "zuzen bete dutenek bakarrik" egin beharko dutela kritikatu du Pilar Rios.

+Dendakeko ostalariei terrazen kuoten ordainketaz galdetuta, udalagaz negoziatzen dabiltzala azaldu dute urteotako ordainketak zati-
ka egin ahal izateko. ■ J.D. / J.G

PSE-EE: "Lau urtean aurkeztu diren proiektuei udalak ez die erantzun. Orain, aldi berean batu gura ditu kuota guztiak"

Terrazen araudia aldatu gura dute, Tabakoaren Legearen eraginez

Ostalariak eta Durangoko Udala araudiaren aldaketak aztertzen dabilta PERCO mahaian



Durangoko ostalari askok ipintzen dituzte terrazak.

Torturari buruzko hitzaldia emango dute San Agustin kulturgunean

Datorren egunean, otsailaren 10ean, torturari buruzko hitzaldia eskainiko dute Durangoko San Agustin kulturgunean, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

Ekimenean tortura hainbat ikuspuntutatik bizi izan dutenen testigantza ezagutu ahal izango da. Horrela, Unai Romanok, berak lehen pertsona bizitako esperientzia kontatuko du; torturatua izan zen Durangaldeko pertsona baten senideek beste ikuspuntu bat eskainiko dute; azkenik, Torturaren Aurkako Taldeak gaiaren inguruko hainbat datu eta xehetasun emango ditu hitzaldiaren testuingurua osatuz.

Unai Romano eta Torturaren Aurkako Taldeko ordezkariak egongo dira, besteak beste

Hurrengo egunean, otsailaren 11n, Durangoko Andra Marian elkarretaratzea egingo dute *Torturarik ez* lelopean eta, otsailaren 14an, berriz, protesta Bilbora tokialdatuko dute, 12:00etan hasiko den manifestazioagaz. ■ J.D.

PLATERUENA

OTSAILA
2011 EGITARAU

www.plateruena.net

ELKARRIZKETAK BERTATIK BERTARA

Pako Aristi

Benito Lertxundi

10 OSTEGUNA BERBERTAN
ELKARRIZKETAK BERTATIK BERTARA
PAKO ARISTI
BENITO LERTXUNDI
20:00etan, Sarrera DOAN

11 OSTIRALA MUSIKAKONTZERTUAK
JABIER MUGURUZA
22:00etan, Sarrera: 10 €

12 LARUNBATA MUSIKAKONTZERTUAK
NASHVILLE PUSSY
+ POSITIVA
20:00etan, Sarrera: 15-18 €

13 IGANDEA DIAPORAMA
1.000 mila
19:00etan, Sarrera: DOAN

17 OSTEGUNA BERBERTAN
ELKARRIZKETAK BERTATIK BERTARA
AMETS ARZALLU &
JON SARASUA
20:00etan, Sarrera: DOAN

18 OSTIRALA GAU ELEKTRONIKOA
GAU ELEKTRONIKOAREN 1. ERTEKURKENA
UNER (Dynamic)
IKER UNDERGROUND
RUBEN COSTAS
22:00etan, Sarrera + konsumazioa: 14-18 €

19 LARUNBATA DANTZALDI BILTARIA
AIKO ERROMERIA
www.aikaldea.com
18:00etan, Sarrera: DOAN

24 OSTEGUNA KANTUZALENTXOKOA
KANTULAGUN
GONBIDATUA: JOSE ZABALA
18:00etan, Sarrera: 10-12 €
20:00etan, Sarrera: DOAN

25 OSTIRALA MUSIKAKONTZERTUAK
YOKO OUT
+ GHETTO
22:00etan, Sarrera: DOAN

26 LARUNBATA MUSIKAKONTZERTUAK
NUMEN
BLOODLINE
DARK CODE
22:00etan, Sarrera: 7-9 €

27 IGANDEA DANTZA IKUSKIZUNA
ANDALUZIAREN EGUNA
15:00etan, Sarrera: DOAN

27 IGANDEA AISIALDIA EUSKARAZ
OLGETAN
UMEENTZAKO TAILERRAK
17:00etan, Sarrera: DOAN

Otsailak 10 · osteguna · 20:00etan · Plateruenean

www.plateruenasarrerak.eu

PLATERUENA

OTSAILA
2011 EGITARAU

www.plateruena.net

ELKARRIZKETAK BERTATIK BERTARA

Pako Aristi

Benito Lertxundi

10 OSTEGUNA BERBERTAN
ELKARRIZKETAK BERTATIK BERTARA
PAKO ARISTI
BENITO LERTXUNDI
20:00etan, Sarrera DOAN

11 OSTIRALA MUSIKAKONTZERTUAK
JABIER MUGURUZA
22:00etan, Sarrera: 10 €

12 LARUNBATA MUSIKAKONTZERTUAK
NASHVILLE PUSSY
+ POSITIVA
20:00etan, Sarrera: 15-18 €

13 IGANDEA DIAPORAMA
1.000 mila
19:00etan, Sarrera: DOAN

17 OSTEGUNA BERBERTAN
ELKARRIZKETAK BERTATIK BERTARA
AMETS ARZALLU &
JON SARASUA
20:00etan, Sarrera: DOAN

18 OSTIRALA GAU ELEKTRONIKOA
GAU ELEKTRONIKOAREN 1. ERTEKURKENA
UNER (Dynamic)
IKER UNDERGROUND
RUBEN COSTAS
22:00etan, Sarrera + konsumazioa: 14-18 €

19 LARUNBATA DANTZALDI BILTARIA
AIKO ERROMERIA
www.aikaldea.com
18:00etan, Sarrera: DOAN

24 OSTEGUNA KANTUZALENTXOKOA
KANTULAGUN
GONBIDATUA: JOSE ZABALA
18:00etan, Sarrera: 10-12 €
20:00etan, Sarrera: DOAN

25 OSTIRALA MUSIKAKONTZERTUAK
YOKO OUT
+ GHETTO
22:00etan, Sarrera: DOAN

26 LARUNBATA MUSIKAKONTZERTUAK
NUMEN
BLOODLINE
DARK CODE
22:00etan, Sarrera: 7-9 €

27 IGANDEA DANTZA IKUSKIZUNA
ANDALUZIAREN EGUNA
15:00etan, Sarrera: DOAN

27 IGANDEA AISIALDIA EUSKARAZ
OLGETAN
UMEENTZAKO TAILERRAK
17:00etan, Sarrera: DOAN

Otsailak 10 · osteguna · 20:00etan · Plateruenean

www.plateruenasarrerak.eu

DURANGO

Durangerren iritziz, trena lurperatzea da premia handiena

Durango Udalak herriko beharizan, arazo eta bestelako gaien inguruko inkesta egin du. Alde Zaharra, Madalena, Landako, Askatasun etorbidea, Alluitz kalea, Tabira, San Fausto eta Larrinagatxuko 557 durangerren artean egin zuten inkesta 2010eko azaroaren 24tik abenduaren 1era. Udal arduradunek azaldu dutenez, ondorio nagusi moduan Durangok duen beharizan handiena trenaren lurperatzea da (%9,7). Inkestaren arabera, herritarren %97,3k eza gutzen du proiektua eta 9,12ko puntuazioa eman diote. Beste beharizan batzuk aparkaleku falta (%8,1) eta gazteendako aisialdia (%6,1) dira.

Durango Udalaren irudiarri buruz, %46,1ek iritzi ona dauka eta %38,1ek ez ona ez txarra. Alderdi politikoen inguruan ere galdetu dute. Azterketak dienez, puntu gehien EAJk eskuratu ditu (5,85); jeltzaleen ondoren letozke, Aralar (5,74), Ezker Batua (5,21), Ezker Abertzalea (5,11), PSE-EE (4,06) eta PP (3,23). ■ J.G.

ABADIÑO

Jaiaz gozatzera bertaratu zen jendetzak berotu zuen azoka eguna

Egitarau oparoa osatu dute San Blas jaietarako: gustu guztiak asetzeko proposamenak ditu

Jai-giroa islatzen duen irudi berezienaren bila San Blas-etako argazki lehiaketara euren lanak aurkeztu zituztenak, azokan erosketak egitera joandakoak, erakusmahaiaren barruko aldean beharizan hainbat, egitarauko tradizioko hainbat ekimenean parte hartzen edo produktuak dastatu eta erosten beste asko... ehunka lagun izan ziren eta atzo, otsailaren 3an, San Blas eguneko jai-giro paregabea bizitzen.

Maria Teresa Monasterio abadiñarrak sari bi irabazi zituen: behi talderik onena eta herriko bigantzarik onena

Urteko sasoiari dagokionez, hotz samar eta lanbrotsu hasi zen atzoko eguna, baina urteroko artisautza eta nekazal azokak eta abereen erakusketa eta salmenta postuen inguruko jendetzak epeldu zuen giroa. Durangaldek eta hainbat tokitatik etorritako baserriarren postuak eta bisitariak jaso zituen atzo Zelaieta auzoak.

Stand eta ganadu onenak
Azokako postu eta ganadu onenak ere saritu zituzten atzo: Maria Teresa Monasteriok sari bi irabazi zituen: ferriako behi talderik eta herriko behirik onenak. Herriko bigantzarik eta zekorriak onenaren sariak Jacinto Iturriagaetxe-



Otsailaren 3ko azokan hartutako argazkia.

Fruituen eta nekazal produktuen alorrean Jose Etxebarria gatikarra eta Adela Andikoetxea urduliztarra saritu zituzten

barriak eta Aitor Bilbaok irabazi zituzten. Fruituen postuetan Jose Etxebarria gatikarrarena hautatu zuten eta nekazal produktuen arloan Adela Andietxera urduliztarrarena. ■ I.E./J.D.

> Bideoa: www.anboto.org

ELORRIO

Argiñetaren etorkizunari buruzko hausnarketan, lehenengo ondorioak

Lehenengo bi batzarrak egin dituzte jadanik, eta 30 bat lagunek parte hartu du batzarreko

Herritarrek Argiñetako proiektuari buruz daukaten iritziak jasotzeko asmoz bi batzar egin dituzte jadanik. Argiñetaz gainera, proiektuak herriagaz eta eskualdeagaz izan beharreko hartu-eman ere aztertu dute. Bi batzar horiek proposamenak botatzeko erabili dira gehienbat, eta hainbat iritzi entzun ahal izan dira bertan. Ondorio nagusi bat atera dute bertan: ahalik eta proiektu naturalena egitea, horretarako, ingurunea eta natura babestuz. Esaterako, bertan Interpretazio Zentrorik ez egitea eskatu dute; egitekotan, herriguru-

nean egiteko esan dute. Aparkalekua ere herrian egitea hobe litzatekeela da batzarkideen iritzia. Gainera, egitasmoa ondo joanez gero, herritik taxi, bizikleta edo autobus zerbitzua ipintzea proposatu dute. Errepidetik espaloia atontzea ere aipatu da; batzarkideen iritziz, honek Argiñetara hur-

Ahalik eta proiektu naturalena egin behar dela ondorioztatuta dute batzarkideek



Argiñetaren etorkizunari buruz hausnartu dute. Judit Fernandez

biltzeko ibilaldia erraztuko luke. Horrez gainera, eskaintza Amankomunazgoagaz batera egiteko eskatu dute. Bestalde, Kristina Sierra zinegotziak adierazi du hona-

koa "proiektuaren abiapuntua" baino ez dela. Pauso guztiak ematen ditugun heinean herritarrei informazioa helaraziko zaiela ere eman du jakitera. ■ A.M.

Maite Leanizbarrutiak irabazi du EMERen errifa

Gabonetako erosketak herrian egitera bultzatzeko Elorrioko Merkatarien Elkarteak zozketa bat egin ohi du urtero. Aurtengo saritua Maite Leanizbarrutia elorriarra izan da; 2.100 euro irabazi ditu. Zerbaki saritua Sagastizabal dendan banatu zuten. Aurtengoa ekimen hori ospatzen den hamargarren aldia izan da. EMERen esanetan, aurtengo Gabonak iazkoak baino eskasagoak izan dira: atera

dituzten 35.000 zenbakietatik 30.000 saldu dituzte; iaz baino gutxiago saldu dira. Elorrioko 63 saltokik parte hartu dute ekimenean; taberna eta dendak dira, batez ere. Gehien saltzen den urteko sasoi dira Gabonak, eta erosketa horiek Elorrioren egitera bultzatzeko sortu zuen EMERek ekimena. Iazko zerbaki saritua Parra tabernan banatu zen, baina orduko irabazlea ez zen agertu. ■ A.M.



Maite Leanizbarrutia eta Ana Descarga sari banaketan.

Jaurlaritzaren baietza du Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak

Oraintsu jaso du Elorrioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra Eusko Jaurlaritzaren baietza. Udaltzarrean onartu ondoren -Ezker Abertzaleak, EAJk eta PSE-EEK alde bozkatu zuten eta EHAK kontra- Jaurlaritzako Lurralde Antolamendurako Batzordeak ere aldeko jarrera erakutsi du. "Zuzenketa batzuk egin behar ditugu, baina zehaztapen tekniko txikiak dira", azaldu du Niko Moreno alkateak.

Testu bateratua marbtxorako amaitu eta udalbatzarrak behin betiko onartu beharko du

Orain testu orokorra eta zuzenketa txosten bakarrean batu behar dituzte. Lan hori marbtxorako amaitzea itxaroten dute eta ondoren udalbatzarrak behin betirako onartu behar du.

Errekurtsoa auzitegian
Bitartean planaren harira sortutako Aholkulari Batzordeko kide bik, plan orokorra geldiarazteko asmoz, azaroan Auzitegi Gorenean aurkeztutako errekurtsoak oraindik ez du ebazpenik jaso. CCOOko ordezkari legez zegoen Jose Luis Zubillagaren esanetan, "bozketan berdinketa eman zen, eta alkateak ez zuen kalitatezko botoa erabili, nahiz eta gero aktan horrela jaso zuten". ■ J.D.

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21



Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

Kataide Industrigunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13



 <p>2 UNTS</p> <p>1000 b/min 6 kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa GARBIGAILUA WAE20010EE 345 € </p>	 <p>2 UNTS</p> <p>1200 b/min 6 kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa GARBIGAILUA AWO/D6130 275€ </p>	 <p>2 UNTS</p> <p>1200 b/min 7 kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa GARBIGAILUA EWF-12480W 395 € </p>	 <p>2 UNTS</p> <p>1000 b/min 8 kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa GARBIGAILUA WAQ20361EE 435 € </p>	 <p>2 UNTS</p> <p>1200 b/min 8 kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa GARBIGAILUA F-2612 455 € </p>
 <p>2 UNTS</p> <p>1400 b/min 8 kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa GARBIGAILUA L-74950-A 545 € </p>	 <p>2 UNTS</p> <p>7 kg KONDENTSAZIOA</p> <p>B Saikapen energetikoa LEHORGAILUA T-56840-L 435€ </p>	 <p>2 UNTS</p> <p>7 kg</p> <p>B Saikapen energetikoa LEHORGAILUA WTE8631 PEE 475 € </p>	 <p>2 UNTS</p> <p>A Saikapen energetikoa ONTZI-GARBIGAILUA 50872 375 € </p>	 <p>2 UNTS</p> <p>A Saikapen energetikoa ONTZI-GARBIGAILUA LJ-043X 360 € </p>
 <p>2 UNTS</p> <p>A Saikapen energetikoa LABE PIROLITIKOA HB-73AR521 INDUKZIOZKO PLAKA 899 € </p>	 <p>2 UNTS</p> <p>A Saikapen energetikoa INDUKZIOZKO PLAKA HK-633220 LABE PIROLITIKOA B-3781-5-M 950 € </p>	 <p>2 UNTS</p> <p>1850 X 600 X 600 NO FROST A+ Saikapen energetikoa HOZKAILUA KG36NX03 450 € </p>	 <p>2 UNTS</p> <p>1850 X 600 X 600 NO FROST A+ Saikapen energetikoa HOZKAILUA KG36N73 545 € </p>	 <p>2 UNTS</p> <p>A Saikapen energetikoa GARBIGAILUA ROOMBA 531 370 € </p>

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistendako prezio bereziak.
 Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
 Zatoz eta ezagutu galtzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

			
ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA ERAMANGO DA	MERKATU GERO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA	GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU	+dendak-EKO "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI

BERRIZ

Gaztezulo eta udala elkarrekin, irakurzaletasuna sustatzeko

Berrizko Udalak eta Gaztezulo aldizkariak gazteen artean euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko *Irakurriz gozatu* ekimena garatuko dute bost hilabetez, otsailetik ekainera bitartean. Elkarlanaren ondorioz, DBHko laugarren mailako eta Batxilergoko lehenengo mailako ikasleen artean *Gaztezulo* aldizkaria doan banatuko da.

Irakurriz gozatu ekimenean Gaztezulo aldizkaria doan banatuko dute

Berrizko Udala hirugarrenez murgilduko da ekimen horretan. Iaz Euskal Herriko 35 herritan egin zen kanpaina, eta 7.000 ikaslek parte hartu zuten. Kanpainak aurrez emandako emaitzak "ontzat" jo eta azpimarratu gura izan dituzte udaltek: %76k aitortzen du euskaraz gehiago irakurtzen duela, eta %65k *Gaztezulo flash* buletinaren harpidetza egin zuten euskaraz gazteen intereseko albisteak jasotzeko, besteak beste. ■ M.O.

ATXONDO

Eskola handitzeko lehenengo pausoak ematen hasi dira

Eraikin berria 18 hile barru amaituta egon dadin itxaroten dute, 2012-2013 ikasturterako prest

Kamioien sarbideagaz hasi dituzte asteon eskola handitzeko beharrak. Futbito zelaia hesiz inguratu dute, eta apurka-apurka obra materiala bertara eroaten dabilta. 18 hilabetezko exekuzio epea daukate lanok, eta 2012-2013 ikasturterako 1.580 metro karratuko eraikina prest izango dute.

Obraren arduradunek azaldu dutenez, datorren astean hasiko dira eraikin berria egiteko lurra mugitzen. Txin-txaunak dauden lursailean egingo dute eraikina. Lanek irauten duten bitartean, futbito zelai albotik sartuko dira

Jolas-orduan frontoira joan beharko dute umeek, futbito zelaian obrentzako materiala egongo da-eta

kamioiak, eta zelaian bertan egongo da obretarako materiala. Hori dela-eta, umeek frontoira jo beharko dute jolas-orduan.

Eraikin berriak hiru solairu izango ditu, eta bertan eskolako jantokia, 180 metro karratu baino gehiagoko gimnasioa, aldagelak, liburutegia, ikasgelak eta era-

Txintxaunak kendu eta lurra mugitzen datorren astean hastea itxaroten dute

bilera anitzeko gelak ipiniko dituzte. Gaur egungo eraikinean, besteak beste, haur hezkuntzako gelak geratuko lirarteke.

Geroago eta ikasle gehiago dagoela-eta, txiki geratzen dabil eskola. Ikasturte honetan 79 ikasle daude. ■ A.U.



Obren ingurua hesitu eta materiala ekartzen hasi dira asteon.

IURRETA

Aste bi barru, eskiatzera eta sagardotegira irteerak

Kimuak aisialdi elkarteak asteburu pasa antolatuko du, eta Anderebidek sagardotegirako irteera

DBHko lehenengo mailatik 18 urte bitarteko gazteentzat irteera antolatuko du Kimuak aisialdi elkarteak, otsailaren 18, 19 eta 20ko astebururako. Aretteko pistetara joango dira eskiatzera, eta Belagua eta

Aretteko pistetara eskiatzen joateko hilaren 15a aurretik eman behar da izena

Irunberri ere bisitatuko dituzte. Izena emateko azkeneko eguna otsailaren 15a izango da eta kimuak@kimuak-elkartea.com helbidera idatzi daiteke horretarako; bestela, 665728213 telefonora deitu.

Anderebide emakumeen elkarteak, bere aldetik, hilaren 19rako Astigarragara irteera antolatuko du, sagardotegira. 10:30ean Iurretatik irtengo dute. Datorren eguna da izena emateko azken eguna eta 616490506 telefonora deituta apuntatu daiteke. ■ A.U.

MAÑARIA

Sukaldaritza begetarianoa lantzeko ikastaroa aukeran

Sukaldaritza begetarianoaren gaineko ikastaroa antolatuko, parte hartzeko prest leudekeen herritarren kopurua jakiteko deialdia luzatu dute udal arduradunek; ikastaroan parte hartzeko interesa daukanari, interneteko kultura.manaria@bizkaia.org helbidean edo liburutegira zein udal txerara deituta (94 681 8998) izena

emateko eskatu diote. Udaletik luzatu duten aukera, bost astegunetan izango lirartekeen saioetan, Berrizko Pastor del Gorbea jate-txeko sukaldariaren gomendioak bertatik bertara ezagutu eta praktikan jarri ahal izatea da. Interesa daukaten herritarrek otsailaren 28a baino lehenago izena eman dezatela eskatu dute. ■ I.E.

IZURTZA

Aisialdi guneak sortu eta egokitze hiru egitasmo landu dituzte

Abadetxearen aldameneko lursaila jolas-gune bilakatzea jasotzen du proiektuetako batek

Tokiko Agenda 21 ekimenaren baitan diru-laguntza eskaera egiteko, herrian aisialdi guneak eraiki edo egokitze proiektuak aurkeztea onartu zuten joan zen barikuko plenoan. Abstenitu egin ziren EAJko zinegotziak, eta alde bozkatu zuten, aldiz, gobernu taldeak.

Santo Tomaseko parkea konpontzea eta hainbat gunetan eserlekuak ipintzea ere jasotzen du proiektuak

Ezker Abertzaleko Ballarin zinegotziak azaldu zuenez, diru-laguntza eskaera egiteko "hiru interbentzio" aurkeztea proposatuko dute. Batetik, eliza inguruan iaz burutu zituzten urbanizazio lanen zelanbaiteko jarraipen moduan, Abadetxearen jabetzakoa den eliza aldameneko lursailan umeentzako jolasak eta helduendako ariketa fisikorako makinak ipintzea da gobernuaren egitasmoa. Hain zuzen ere, lursailaren jabe den Bizkaiko Gotzaingoagaz lotutako akordioaren gai-

nean egin zituzten jeltzaleek euren kritikak. Zarrabeitia zinegotziaren berbetan, "hitzarmen bat lotu behar genuke elizagaz, orain egin diguten lagapena oso zehazgabea eta unean uneko borondatearen arabera delako; ez dakigu zer eragin juridiko daukan".

Lursaila erabilera publikorako lagatzea sinatu du Gotzaingoak, gobernu ordezkariek erantzun zuten, eta proiektuaren zehaztasunak ezagutzen ez badiuzte ere, "borondate argia dute aurrera jarraitzeko". Gotzaingoagaz hartu-emanetan jarraituko dutela iragarri dute. Gainera, berritzen diharduten plan orokorrean espazio hori aisialdi gune moduan jaso geratuko dela azpimarratu zuen Muñoz alkatea.

Eliza aldameneko aisialdi guneaz gainera, Santo Tomaseko parkea konpontzea eta herritarrek pasean ibiltzen diren zenbait gunetan bankuak ipintzea jasotzen du proiektuak. ■ I.E.

MALLABIA

Xaker kirol zerbitzuak enpresari esleitu diote udal frontoiaren kudeaketa

Abenduaren amaieran Mallabiko Udalak Xaker enpresari esleitu zion frontoiaren kudeaketa

Mallabiko udal frontoia kudeatzeko Xaker Kirol Zerbitzuak enpresa aukeratu du udalak. Abenduaren amaieran hartu zuen udal frontoiaren kudeaketaren erabakia. Udal arduradunek jakitera eman dutenez, 35.282 euroan egin dute adjudikazioa.

Udal arduradunek jakitera eman dutenez, 35.282 euroan adjudikatu dute zerbitzua

Mallabiko udal frontoian herritarrendako deneriko kirol zerbitzuak eskaintzen dituzte. Gimnasioan parte hartzeko auke-

Mallabiko udal frontoian deneriko kirol zerbitzuak eskaintzen dituzte

ra egoteaz gainera, spinning ikastaroetan eta mantenuko soinetan ikastaroetan parte hartu daitezke. Frontoia eta muskulazio gela ere erabilgarri daude. ■ J.G.

Durungaldean labor

Euskara elkartearen kongresura joateko deia

Otsailaren 26an egun osorako egitaraua antolatu du Euskara Elkartearen Topaguneak. Goizean kongresua egingo dute Bilboko Alondegian; ondoren, bazkaria egongo da Bilboko Kafe Antzokian. Arratsaldean, amaitzeko, ekitaldia egingo dute. Bertara joateko, Berbaro elkartearen eman daiteke izena; azken eguna otsailaren 11 izango da.

Arte garaikideari buruzko hitzaldi sorta

Internetek eta teknologia berriek artean eragin dituzten aldaketa eta erronka berriei buruz hausnarketa egiteko, hiru hitzaldi eskainiko dituzte Kurutzesantu museoan. Otsailean zehar izango dira hitzaldi horiek, eta Josu Rekalde, Maider Lopez eta Jose Angel Artetxe izango dira hizlariak. *Artearen ezaupidea* ekimenaren 8. edizioa da.

Gizon bat atxilotu dute sexu-eraso saiakeragatik

Eguaztenetik eguenerako gauean 21 urteko gizon bat atxilotu zuen Ertzaintzak emakume bati sexu-erasoa egiten saiakeragatik. Mintzaleku bateko behargina da atxilotua, eta bezeroa, ukipenak jaso eta mehaxua sentitu ondoren, komunean sartu zen. Bertatik deitu zion poliziari, eta hauek heldu zuten, behargina atxilotu zuten.

Landako Guneko Txikigunea zabalik

Bihar Landako Guneko Txikigunea atek irekiko dute. Bertan, txikienek hainbat jolas izango dituzte aukeran. Azken urteetan bezala 17:00tik 20:00etara egongo da zabalik Txikigunea. Landako Gunean ezer antolatuz ez dagoen asteburuetan etxeko txikienek Txikigunea izango dute bertan elkarrekin ezagutu ahal izateko.

ZALDIBAR

Gurasoak kezkatuta daude Maisuen Etxearen egoeragatik

Herri ikastetxeko gurasoek "kezka larria" dute Maisuen Etxearen zatiak jausten dabilzako; udalak eraikina saneatu eta ekainean bota egingo du

Zaldibarko Herri Ikastetxeko guraso elkarteak "kezka larria" adierazi du ohar bidez. Dioenez, jolastokian dagoen Maisuen Etxea "zaharkiturik" dago, eta azken boladan eraikin zatiak jausten hasi dira. Umeei gertatu dakiekeenaren beldur dira; "benetako arriskua dago Zaldibarko eskolatan, eta ez digute kasurik egiten", diote. "Berandu izan baino lehenago" neurriak hartzeko eskatu dute gurasoek.

Maisuen Etxea botatzeko proiektua ez dela bete salatu dute: "Urteak daroatzen udalagaz bera egiten, eta urte asko daroate etxea botatzeko proiektuagaz, baina hasieran ez ei zuen lehentasunik eta orain ez ei dago dirurik", salatu dute. Kexu dira irailetik udalak ez duelako eurekin hartu-emanik izan.

Udalak jakitera eman duenez, urtarrilaren 20an jolastokia handitzeko proiektua onartu zuen gobernu batzordeak. Maisuaren Etxea saneatu egingo dute orain. "Arriskua ekidin gura dugu", azaldu dute. Obrak ekainetik irailera egingo dituzte, Jaurlaritzaren 101.000 euroko diru-laguntzagaz. Bertan zeuden elkarrekin beste leku bat topatu eta eraikina botatzea litzateke asmoa, gaineratu dute. "Eskolako ume kopurua kontuan hartuta jolastokiak ez ditu neurriak betetzen", udalaren berbetan.

Haurreskola

Zaldubarieta haur eskolako gurasoen elkarteak, bere aldetik, 667 sinadura batu ditu gabon bueltan hasitako kanpainan, udal agintariekin batzartzeko aukera izatea

aldarrikatzeko asmoz. Martitzenean erregistratu zituzten sinadurok udaletxean; kanpaina amaituta, balorazio "oso ona" egin dute. Euren kezkei -jolastokiaren egoera, hezetasuna eta instalazio elektrikoak, besteak beste- "entzungor" egitea leporatu zion elkarrekin udalari. Azaroan batzarra eskatu eta erantzunik oraindik ez dietela eman diote. Sinadurekin, "15 eguneko epean batzarra egitea" eskatu dute; bestela, "orain arteko bideetik jarraituko" dute. Hala ere, udalagaz batzeko "esperantzaz" daudela diote. ■ M.O. / J.G.

Ikastetxeko gurasoak kexu dira, eta irailetik udalak ez duela eurekin hartu-emanik izan azaldu dute bidalitako oharrean



Jolastokiko etxe zaharra botatzea eskatu dute gurasoek.

GARAI

Udaletxeko teilatua konpontzeko diru-laguntza

Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntza eskatuko dio Garaiko Udalak, udaletxearen teilatua konpondu ahal izateko. Udaletik azaldu digute proiektuaren diseinua amaitzen dabilzala, eta 100.000 euro inguruko aurrekontua izango duela pentsatzen dute.

Egitasmoaren baitan, teilak aldatuko dituzte, eta horretaz gai-

nera, isolatzailea ere ipiniko dute. Berrikuntza sakona izango du, beraz, udaletxeko teilatua.

Bestalde, proiektuari lotuta azken solairuan ere aldaketak izango direla azaldu dute. Orain arte KZgunea egon izan da bertan, baina zerbitzu hori kultur etxera pasatuko denez, udal artxiboa solairu horretan egokituko dute. ■ M.O.

OTXANDIO

Astikurutzeko Neberaren historia ezagutzeko aukera

Neberaren gaineko 'Orbelaren soinu' dokumentalaren 2.000 kopia herritarren eskura ipiniko dituzte

Astikurutzeko Nebera edo elurtegiaren gainean 2001ean egin zuten *Orbelaren soinu* dokumentalaren 2.000 kopia egin ditu Otxandioko Udalak, eta herritarren artean eskuragarri ipiniko

ditu. Dokumentala egiteko sasoi hartan sortu zen lantaldeak "sarritan aipatu izan digu dokumental hark merezi zuela beste aupadaxto bat" adierazi du Txomin Bengoa udaleko kultura zinegotziak.

Eskaera aintzat hartu eta lantalde hartako kideak izan dira DVDa jasotzen lehenengoak; aste honetan bertan izan da hori.

Erakusketa bolatokian

Horrez gainera, hil honen amaieran, Udalak elurtegiaren gaineko argazki erakusketa antolatzeko asmoa dauka bolatokiko aretoan; dokumentala bera ikusteko aukera ere egongo da bideo emanaldi baten bitartez. Bertaratzen diren herritarrek dokumentala DVDan doan jaso ahal izango dute. ■ J.D.

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

PODOLOGOIA 188. Elkargokidea

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

BERBAZ >

“Udalean alderdi bakarra egotea baino hobe da erabakiak eztabaidatzea”

Zorrei dagokienez, udalaren egoera ekonomikoa duela urte biko baina hobe dela dio Mañariko alkateak



Jabier Arteaga •

- Mañariko alkatea (EAJ)
- 16 urte daramatza alkate

“Eusko Jaurlaritzako legeengatik ipini genituen antenak Arruetan”

rako izatea. Arau subsidarioetan horrela dago onartuta. Euren legeak dira, eta horregatik errekurritu dugu epaileen sententzia; legea aldatu behar bada Eusko Jaurlaritzak aldatu beharko duelako. Kendu egin behar badira, kendu egingo ditugu eta kitto.

Hamasei urte daroatzazu alkate. Zer ikasi duzu urteotan?

Nik pentsatzen dut sekula ez dela ikasten dena. Legeak egun batetik bestera aldatzen dira... Oztopo arkitektonikoen kontuagaz, adibidez, orain dela ez horrenbeste egindako espaloiak konpondu behar dira. Gauza txikiak dira batzuk, baina gauza txiki asko.

Zelan ikusten dituzu maiatzeko hauteskundeak?

Beti esan dut gurago nukeela denok joango bagina hauteskundeetara. Bakoitzak berea defendatzeko eskubidea eduki behar du. Gu egonda gaude oposizioan, eta eztabaidak egoten ziren, baina aurrera! Orain udalean bakarrik gaude, eta iruditzen zait hobeto dela eztabaidatu eta gauzak aurrera denon artean ateratzea; garbiagoa da. Onartu ditzatela hauteskundeetan, eta datozela udalera botoekin irretzen duten denak. Ikusiko dugu zer gertatzen den, baina txarto ikusten dut egoera: Madrilen interes asko dituzte ilegaltzazioaren gaiagaz. ■ A.Ugalde

Ondo ezagutzen duen bulegoan batu gara Jabier Arteaga Mañariko alkateagaz. Mañariko azken lau urteetaz eta etorkizunaz egin dugu berba beragaz.

Azaroan onartu zenituzten aurretengo aurrekontuak. Zelan hasi du urtea Mañariko Udalak?

Inbertsio gutxigaz. Aurten inbertsio nagusia kultur etxea amaitzeko izango da. Diru-laguntza beharko dugu horretarako, ia 180.000 euro kostatuko du-eta. Beste inbertsioren bat egiteko ere diru-laguntzak beharko ditugu. Gastu arruntak mantenduta dauzkagun zerbitzuei eustea izango da kontua.

Zelakoa da udalaren egoera ekonomikoa?

Iaz baino aurrekontu txikiagoa daukagu, baina zorrari dagokionez, duela urte bi baino hobeto gaude. Esan zuten Espainian zor gehien zeukan udala zela gurea, baina nik ez nuen sinistu. Espainian egongo da hemengo baina zor handiagoa

daukan udalik. Dena dela, zorra kultur etxerako eraikina erosterakoan igo zen. Ia milioi bat ordaindu genuen. Horrek Mañarian, biztanle bakoitzarentzako ia 2.000 euro suposatzen ditu.

Azken lau urteotan egindakotik zer nabarmenduko zenuke?

Azpiegitura ugari egin ditugu. Kultur etxea erosi eta beharrekin hasi gara. Urkuleta auzora ur-hoditeria eroan dugu, eta hori ere gastu nahiko handia izan zen. Haur eskola ere egin genuen, eta errotonda ere bai. Nik uste dut inbertsio gogorrak egin ditugula herrian.

Etxebizitza tasatuak egiteko asmoa agertu duzue. Aurrerapausorik eman duzue?

Bagabiltza zer edo zertan. Iturrietan harrobi bat geldirik dago joan den urteetan, eta han inguruko lurretan etxeak egin gurako genituzke. Foru Aldundian, Ingurugiro Sailean, eskaria eginda daukagu ea han eraiki daitekeen jakiteko. Leku polita da; artadi bat dago alboan, babestuta dagoena eta ez

“Kultur etxea egiteko eraikina erosi genuenean asko hazi zen udalaren zorra, baina orain hobeto gaude”

genukeena ukituko. Ea zer dioten. Onartzen badute, hurrengo legegintzaldian hasteko asmoa daukagu.

Etxebizitzak herriko premietako bat dira?

Bai. Gazteek etxebizitzak hartzeko etxeak egitea gura dugu, prezio ez oso karuekin. Behar dugu, nahiz eta Mañaritik, egia esan, aspaldi baten jendea ez den joan. Biztanle kopurua hazi egin da azken bi urteotan; duela urte bi 460 inguru ginen eta orain 520 gaude. Gazteek etxebizitzari heltzeko etxeak egitea gura dugu.

Gorabehera askoren ondoren, Zalloventa harrobiazarratutute. Horrela agindu du legeak, eta udalak ezin du ezer egin. Guretzako baimen guztiekin egon zen martxan, baina

Eusko Jaurlaritzak ez bazituen onartu, ez dago ezer gure esku. Orain Eusko Jaurlaritzari laster batzarra egiteko eskatu behar diogu, ze ez dakigu ezer eta ingurua lehengora ekartzeko beharrak egin beharko dituzte.

Arruetako antenen auziak ere hautsak harrotu dituzte. Zer konponbide ikusten diozu arazoari?

Guk han ipini genituen antenak Eusko Jaurlaritzak agindu zigulako lur hori telekomunikazioen azpiegitura-

“Azken urte biotan 460 biztanletik 520 izatera pasatu gara Mañarian”

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

10. urteurrenean
ESKERRIK ASKO
gure bezero guztiei

Eitua industrigunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 94 682 45 50 • alkimax@alkimax.com

LORAZAINTZA



Motozerra



Lorezaintzarako traktorea



Zulagailua



Gasolinazko motordun aitzurra

ERAIKUNTZA



Plataforma jasogailua



Minidumperra



Mini zamagailua

4 x 4 dumperra birakaria eta bere kabuz kargatzekoa



Mini hondeagailua 1.800kg

JASOGAILUAK



Maneiagailua

Beso artikulatuak



Artazia



Eskurra

www. alkimax.com



KULTURA[>]

EKIMENA > PLATERUENEAN

Berbertan: elkarrizketzaile zorrotzak eta zeresan handiko elkarrizketatuak Plateruenean

Euskal Herriko kulturgintzari dagokionez eskarmentu eta zeresan handikoak diren sei lagun bilduko dituzte Plateruenean lehenengoz antolatu duten 'Berbertan' ekimenerako. Benito Lertxundi eta Pako Aristi dira lehenengo gonbidatuak

Kulturgintza izango du ardatz Plateruena kafe antzokian aurten lehenengoz antolatu duten Berbertan ekimenak. Antolatzaileen berbertan, datozen urteetan ere "negu partean egiteko bokazioz sortu" den elkarrizketa zikloa da berau.

Estreinako edizio honetan, zeresan handiko hiru sortzaile ekarriko dituzte Durangora, kulturgintzaren hainbat alderdi jorratzeko helburuagaz: Benito Lertxundi musikaria, Jon Sarasua idazle eta irakaslea, eta Edurne Brouard AEK-ko kidea dira edizio honetako gonbidatuak.

Kulturgileak euren iritzi eta esperientziei buruz, Plateruenean bertan

Hiru gonbidatuak Euskal Herriko kulturgintzaren gainean euren esperientziatik jardun dezaten, euskarazko komunikabideetan diharduten beste hiru elkarriz-

ketatzaile deitu dituzte; kazetariak eta herri-kulturgintzaren hainbat esparru barrutik ezagutzen dituztenak dira: Pako Aristik, Amets Arzallusek eta Maddalen Iriartek bideratuko dituzte saioak.

Azken urteetan egiten diharduten eran, euskarazko herri-kulturgintza sustatzeko asmoagaz abiatuko du ekimen berri hau Plateruenean; kulturgileak euren esperientzia eta iritziei buruz kafe antzokian bertan, bertatik bertara izan eta eskaintzeko.

Berbertan saioak gidatuko dituzten elkarrizketatzaileek proposatuko duten bidetik, besteak beste, euskarazko kulturgintzari lotuta beti, sorkuntzaren, zabal-kundearen, herri-mugimenduen eta abarren gaineko gogoetak mahai-gaineratu ahal izango dituzte elkarrizketatu, parte-hartzaile zein entzuleek eurek ere.

Otsailaren 10ean da ekimenaren lehenengo hitzordua, eta otsailaren 17an eta martxoaren 3an dira hurrengo biak. Saio guztiak Plateruenean, 20:00etan hasita. ■ I.E.

Pako Aristik Benito Lertxundi elkarrizketatuko du lehenengoz



Otsailaren 10ekoa da Berbertan ekimenaren estreinako hitzordua. Bertan, Pako Aristik idazle eta kazetari gipuzkoarrak Euskal Herriko musikagintzan murgilduta lau hamarkada daramatzen Benito Lertxundi musikari oriotarra elkarrizketatuko du. Bere ibilbide artistiko zein pertsonal oparoan

bildutako esperientziak eta gogoetak konpartituko ditu Benito Lertxundik Platerueneko entzuleen aurrean. Pako Aristik proposatu ditu lehenengo elkarrizketako gaiak. ■ I.E.

DATAK

- + Otsailaren 10ean, 20:00etan
 - Pako Aristi
 - Benito Lertxundi
- + Otsailaren 17an, 20:00etan
 - Amets Arzallus
 - Jon Sarasua
- + Martxoaren 3an, 20:00etan
 - Maddalen Iriarte
 - Edurne Brouard



Edurne Brouard eta Maddalen Iriarte parez pare

Apirilean 17. edizioa duen eta arduradun Edurne Brouard duen Korrika baino hilabete lehenago izango dugu AEK-ko kide bilbotarra Platerueneko Berbertan ekimenean. Maddalen Iriarte kazetari durangarrak gidaturiko elkarrizketan izango da astirik Edurneren bestelako bizipen batzuentzat ere. ■ I.E.

Amets Arzallus Jon Sarasuari puntuak jartzen

Otsailaren 17an, Berbertan zikloaren bigarren zitan jarriko dira Jon Sarasua bertsolari, idazle eta irakaslea eta Amets Arzallus bertsolari eta kazetaria Plateruenean aurrez aurre. Amets Arzallus hendaierak emandako puntuak erantzuten jardungo du Jon Sarasuak, kulturgintzaz nahiz bestelako esperientziez.



MUSIKA > ELKARRIZKETA

'Taxirik ez' lana aurkeztera dator Jabier Muguruza otsailaren 11n

Txema Garces baxuan eta Angel Unzu gitarran izango ditu lagun Muguruzak Plateruenean



Urteko lehenengo emanaldia duzu Durangokoa? Zelan joan dira 'Taxirik ez' diskoaren aurkezpen kontzertuak?

Durangokoa aurtengo bigarrena izango da. Lehenengoa TVEko *Página 2* saiorako izan zen. Kontzertuak orain arte ondo joan dira. Krisiarekin, kontratazio kopurua jaitsi egin da, baina pozik gaude egindakoekin. Nik uste aurrerantzean musikariok beste modu batera planteatu beharko ditugula gauzak; oraingo egoera ekonomikora egokitu, alegia, izan ere, obra berria zuzenean aurkezteko irrikitan egoten gara.

Datozen hilabeteetan Parisera, Zaragozara, Baionara, Cuencara... zoaz, itxura batean elkarrengandik oso desberdinak ematen duten publikoen aurrean kanta-terza. Zelakoa da hain entzulego anitzarentzat jardutea?

Oso aberasgarria da. Hemendik kanpora, beti saiatzen naiz kanta artean testuak azaltzen, eta publikoarekiko komunikazioa bultzatzen.

“Musikariok beste modu batera planteatu beharko ditugu gauzak aurrerantzean”

tzen. Esaterako, *Taxirik ez* Frantziara hasi da banatzen, eta Paris eta Bordeleko kontzertuei begira frantsesa berreskuratzen nabil. Cuencan, *Sound Track* jaialdian, gaztelaraz ariko naiz publikoarekin, eta hemen Durangon, esaterako, euskeraz. Hizkuntzak asko markatzen du emanaldiaren tonua, eta jendearen izaera eta kultura-tradizioak ere bai.

Hemen inguruan, Durangon eta Abadiñon jo zenuen 2009an. Zuzeneko haien zer oroitzapen daukazu?

Elkarrengandik oso desberdinak izan ziren. Durangokoa, bertako Azokaren testuinguruan izan zen,

Gerard Quintanarekin batera. Abadiñokoa, berriz, ohiko zirkuituan eman genduen, nolabait esateko. Bi emanaldien oroitzapen oso onak gordetzen ditut, hala ere.

'Aitarekin bidaian' antzerki obran musika zuzenean jotzen ere ikusi zaitugu duela gutxi. Zelakoa izan da esperientzia?

Lehendik ere konposatua nuen musika dezente antzerkirako, baina oraingoan, konposatzeaz gain, zuzenean aritzea ere tokatu zait, eskusoinuaz. Luxu bat da Soroiz eta Apaolazarekin eszenatokia partekatzea, Agurtzane Intxaurregaren zuzendaritzapean. Profesional bikainak dira hirurak, eta asko ikas daiteke eurengandik. Gainera, obra arrakastatsua suertatu da oso gai gogorra jorratu arren, eta hori ere oso eskertzekoa da garai hauetan.

'Taxirik ez' diskorako, idazle lagunen kolaborazioa eduki duzu. Zelan sortzen da idazleekin hartu-eman hori?

Harremana aspalditik dator, aspalditik ezagutzen ditut. Nire "sintonian" dauden idazleak dira; soka-koak-edo. Munduan kokatzeko euren moduak eta nireak zerikusi handia dutela esango nuke. Bikain idazten dute, gainera.

Zer musikari izango dituzu Plateruenean laguntzen?

Bi maisu handi joango dira nirekin Plateruenera: Txema Garces (baxua) eta Angel Unzu (gitarra akustikoa). Bi musikari horien ibilbidea jarraituta, euskal kantagintzaren azken hamarkadetako historia idatz daiteke ia-ia.

Zer proiektu daukazu eskuartean une honetan?

Batetik, jarraitzen dut *Taxirik ez* zuzenean defendatzen. Bestetik, Bernardo Atxagarekin batera, *Paradisuz* errezitaldia ari naiz eskaintzen, eta *Aitarekin bidaian* antzerki obra ere ari gara ematen oraindik ere. Apirilean, bestalde, *Encuentros con alma* elkarrizketa-liburua kaleratuko dut. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Jose Julian Bakedano
Zinegilea



Bruce Chatwin eta euskaldunak

1940ko maiatzaren 13an jaio zen Chatwin Sheffield-en, Yorkshire-n. Wiltshire-ko Marlborough College-n burutu zituen lehenengo ikasketak, eta Edinburgoko unibertsitatean ikasi zuen gero.

1958an, Sotheby's enkante konpainian hasi zen lanean, eta konpainiaren zuzendari izatera iritsi zen geroago. Bere ikusmen gaitasun zorrotzarri esker, aditu bilakatu zen arte inpresionistan. Baina, ikusmen arazoak edukitzen hasi zen. Sudanera joan zen. Bidaia hartatik bueltan, arte munduagaz desengainatuta, arkeologiara bideratu zuen bere interesa.

Urte horretan bertan, arkeologia ikasketetan matrikulatu zen Edinburgoko unibertsitatean.

1972an, Sunday Times Magazine-ek arte eta arkitektura gaietarako aholkulari izateko kontratatu zuen Chatwin. Aldizkari lanari esker, nazioarteko hainbat gai jorratu eta André Malraux eta Nadezhda Mandelshtam bezalako jendea elkarrizketatu ahal izan zuen.

Parisko bere egongelan elkarrizketatu zuen Chatwin-ek 93 urteko Eileen Gray arkitektu eta diseinatzailea. Orduan jakinarazi zuen berak margotutako Patagoniako mapa baten existentzia. "Beti gura izan dut bertara joan", esan omen zion Brucek. "Nik ere bai", erantzun zion emakumeak, "zoaz hara nire bila".

Sei hilabetez egon zen han, eta bidaia haren emaitza den *En la Patagonia* (1977) liburuak ezagutarazi zuen bidaia liburuen idazle bezala. Bere idazkera lehorrak eta istorioak kontatzeko daukan talentuak bilakatu du Chatwin idazle mirestu. Nizan, 48 urte zituela hil zen Chatwin, 1989an.

Euskaldunei buruzko erreferentzia hauxe irakur daiteke *En la Patagonia* liburuan: "Bere furgoneta zaharrean joan ginen herritik. Bidaiariaren eserleku ondoko atea trabatuta zegoen. Baserrian hainbat lan burutzen zituen eta hare koloreko ilea zeukan euskaldun tentel eta zimurtu bati igotzen uzteko jaitsi behar izan genuen txabola herdoildu batean".

MUSIKA > LEHIAKETA

Lehenengo maketa lehiaketa Rock Izar eskolan

Disko grabazio bi, kontratu diskografiko bat eta zuzeneko emanaldiak jasoko dituzte sari moduan aukeratuek

Bakarleri eta musika taldeei zabaldua dagoen lehiaketa da Durangoko Rock Izar eskolan lehenengo antolatuta dutena. Otsailaren 15a arte eman ahalko dute lehiaketan izena interesa daukaten eta aurretik disko bat baino gehiago kaleratua ez duten musikariek.

Bost kanta biltzen dituen grabazioa aurkeztu beharko dute lehiaketan parte hartu gura duten-

nek, otsailaren 15a baino lehenago: Rock Izar eskolaren Alluitz kaleko egoitzan jasoko dituzte lehiaketarako proposamenak.

Epaimahaiak hautatzen dituen zortzi taldeek martxoan eta apirilean izango diren zuzenekoetan defendatuko dituzte euren kantak. Apirilean burutuko dute finala, eta bertan erabakiko da irabazlearen izena. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

JABIER MUGURUZA
KONTZERTUAN
OTSAILAK 11

5 SARRERA BIKOITZ ZOZKETAN

BIALDU ZURE DATUK:
astekaria@anboto.org helbidera

www.plateruena.net

ZINEGOAK: Cortos LesGay

La Cita (L) + D'une rive à l'autre (L)
+ Födelsedag (L) + Dinero fácil (G)
+ Bedfellows (G) + Fuckbuddies (G)

Durangoko Udaleko Aukera
Berdintasuneko Saila

Otsailak 4 • 20:30ean

VUELVE BIGOTILLO VUELVE
Banarte Antzerki Taldea (Abadiño)

Otsailak 5 • 20:00etan

San Agustín
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA

11.04.001 07 76

HITZ

Liburudenda

Zurlea

ARROPA ETA ZAPATA DENDA

*Denboraldi
barriagaz
ganoraz hasteko,
aurrekoa agortu
behar da!
Hile honetan
dena %60ko
deskontuagaz!*



Montebideo etorb. 3 • Durango (Bizkaia)



MOSCANEVA



FRED PERRY



ARGAZKIGINTZA > LEHIAKETA

Azkeneko urteetan legez, Durangaldeko herrietan hartutako argazkiekin egutegia osatuko du Anboto Komunikabideak taldeak. Berrikuntza moduan, baina, 2012ko egutegian agertuko diren argazkiak hautatzeko lehiaketarako deialdia burutu du lehenengoz.

16 urtetik gorako argazkizaleek hartu dezakete parte

2012ko urriaren 1a arteko epea dago argazkiak bidaltzeko

Hamasei urtetik gorako parte-hartzaile bakoitzak Durangaldeko herri bakoitzeko argazki bat aurkeztu beharko du: Abadiñon, Atxondon, Berrizen, Durangon, Elorrión, Garain, Iurretan, Izurtzan, Mallabian, Mañarian, Otxandion eta Zaldibarren hartutako argazki bana bidali beharko du; hamabi argazki, beraz, guztira.

Aurtengo urriaren 1a arteko tartea izango dute hala gura dutenek euren proposamenak e-postaz edo CD batean lehiaketara aurkezteko (lehiaketako oinarriak

www.anboto.org-n). Urriaren 30a baino lehenago jakinaraziko du Anboto Komunikabideek osatutako epaimahaiak hautatutako argazki irabazlea zein den.

500 euroko saria

Argazkizale bakoitzak lehiaketara aurkeztu duen argazki dozena horretatik bat aukeratuko du epaimahaiak, eta onentzat aukeratutako argazki horren egileak jasoko du 500 euroko saria.

Irabazle hautaturiko argazkiagaz batera, lehiaketara aurkeztu diren argazki guztien artetik Durangaldeko herri bakoitzeko argazki bana ere aukeratuko du Anboto Komunikabideak taldeak, hilabete bakoitzaren orrian argitaratzeko: horrela, orain arteko moduan, Durangaldeko hamabi herrietan hartutako argazki banagaz osatuko da datorren urteko egutegiaren orri bakoitza. ■ I.E.

Argazki bana bidali behar da Durangaldeko herri bakoitzeko: 12 argazki

Epaimahaiak argazki bat aukeratuko du, eta saria 500 eurokoa izango da

Anbotoren 2012ko egutegiako argazkiak hautatzeko lehiaketa

'12 hile, 12 herri' izenagaz antolatu du Anbotok 2012ko egutegiako argazkien lehiaketa



MUSIKA > EMANALDIAK



'Kindly symphony': Egigurenen azken lana

Hego Euskal Herriko lau hiriburutan estreinatuko dute Jesus Egiguren durangarrak konposatutako obra musikala

Durango Bartolome Ertzilla musika eskolaren sortzaileetako bat izandakoa da bihar, astelehenean, martitzenean eta eguaztenean estreinatuko duten obraren egile ere baden Jesús Egiguren.

Gasteizen eskainiko du Euskadiko Orkestra Sinfonikoak bihar *Kindly symphony* lehenengoz, eta Donostian eta Iruñean eskaini eta gero, otsailaren 9an, 20:00etan, Bilboko Euskalduna jauregian interpretatuko dute.

Egigurenek Euskadiko Orkestrarentzat sorturikoa da aste honetan estreinatuko duten *Kindly*

Symphony izeneko lana, eta orkestra horrexek eskainiko du datozen egutegiaren emanaldietan.

Ibilbide oparoa

Bilboko J.C. Arriaga kontserbatorioan burutu zituen goi mailako piano eta konposizio ikasketak Egigurenek, eta hainbat sari irabazi ditu konpositore lanean.

Nazioarteko hainbat jaialditan interpretatu dituzte lehenago ere Egigurenen lanak: besteak beste, Frankfurt, Cagliari, Madril, Santander, Sevilla eta Granadako jaialdietan estreinatu dituzte bere lanak, eta diskoan ere argitaratu izan ditu bere sorkuntzak.

Durango Bartolome Ertzilla kontserbatorioa sortu zutenetakoa bat da Egiguren, eta bertan ibili da iazko ikasturtera arte irakasle lanetan. Orain zenbait urte, 2006an, musikagintzan egindako lana goraipatzen zuen Durango Hiria saria ere eman zioten. ■ I.E.

Nazioarteko hainbat jaialditan interpretatu dituzte Egigurenen lanak

Durango Hiria saria jaso zuen 2006an; musika eskolako irakasle izan da

2012ko egutegiaren argazki lehiaketa

hartu egizu parte!

Oinarriak: anboto.org



12 hile 12 herri



KIROLAK >

“20 urteko ibilbidean sekula ez naiz jokatzeko ilusiorik barik zelairatu”



Gaur egun, Bera Bera taldeagaz ohorezko mailan jokatzen dihardu Astarloak.

Euskal Kirol Federazioen Batasunak duela gutxi banatu zituen III. Euskal Kirola Sariak. Euskadiko Errugbi Federazioak horrela proposatuta, Oskar Astarloak (Elorrio, 36 urte) jaso zuen errugbiari dagokion saria.

Horrelako sari bat jasotzea beti da pozgarria.

Halaxe da. Beste hainbatek ere merezi dute, baina oso pozik nago. Gainera, jende askok zoriondu nau, eta horiei ere asko eskertzen dizkiet animoak.

Gazterik, 15 urteagaz, hasi zinen Elorrio rugby taldean jokatzen.

Gazteok fraileen eskolako harezko zelaian entrenatzen genuen. Hutsetik hasi ginen; hasieran jipoi galantak hartzen genituen Mungian, Hernanin... Baina apurka hobetzen joan ginen, eta Bizkaiko Kopa irabazi genuen, Kakarraldoren kontra.

19 urteagaz Xerox Getxo taldeak fitxatu zintuen.

Bai. Gaztetan Getxoren partiduak ikustera joaten nintzen lagunekin; gaur egun, futboleant

Bartzelonaren partiduak ikustea lakoxea zen. Beraz, imaginatu nire ilusioa deitu zidatenean.

Beste eskaintza tentagarri bi etorri zitzaizkizun handik urte bira.

Bai, Baionatik eta Miarrizetik. Baiona bigarren mailan zebilen; Miarriz lehenengoan. Orduan, Getxotik bueltan Elorrioren nentzen, eta Miarrizera joatea salto handiegia zela pentsatu eta Baionan probatzea erabaki nuen. Hiru urtez segidan igoera fasea jokatu nuen, igoera lortu barik. Azken urtean, entrenamenduak areagotu zituzten eta bidaia denak ez zizkidaten ordaintzen. Orain eta hemen pentsatzen ipinita, beharbada hara bizitzen ez joatea hutsegitea izan zen.

Miarrizera ez joatea ere erabaki zenuen. Orain beste erabaki batzuk hartuko zenituzke?

Ez, ez dut bat ere damurik. Beharbada, batzuetan, erabakiak hartzeko orduan talde-giroari eta horrelako faktoreei gehiago erreparatu izan diet, irabazi nezakeenari baino. Alde horretatik bigun jokatu dudala? Beharbada. Baina hartutako erabakien damurik ez daukat.

PROIEKTUAK

Taldeak: Elorrio rugby taldea, Xerox Getxo (ohorezko mailan), Aviron Bayonnais (ohorezko mailan), Donibane Lohitzune, Ordizia (ohorezko mailan) eta Bera Bera (ohorezko mailan)
Euskadiko Selektzioa: Sei bider irabazi du Lurraldeko Selektzioen Txapelketa.

Espainiako Selektzioa: 23 neurketa jokatu ditu eta 7 jokalariko eta 14 jokalariko mundial bana jokatu du.

genuen, garaipenarena behar zuena, partidu amaiera iragartzen zuen sirena joa zegoelako. Eztabaida luzeen ondoren, epaileak beste jokaldi bat eman zuen, eta Japonetik entsegua lortu eta kanporatu egin gintuen.

Gaur egun, Bera Beran zabilta. 36 urteagaz errugbia gazteagotan legez bizi duzu?

Berdin-berdin; ilusio handiz. Batzuetan beste jokalarik batzuek esan izan didate: “Gaur ez dut jokatzeko gogorik”. Partidua hasi aurretik sekula ez dut sentazio hori eduki. Hobeto edo txarrago jokatu nezake, baina beti jokatzeko gogoz zelairatu naiz.

Elorrio 30. urteurrena ospatzen dabil.

Izan dira urteak, esaterako, jaietan batu eta taldea sortuko zen, ez zen, dudak azaleratzen zirenak: “14 jokalarik bakarrik gauden...” eta antzekoak. Aurten, aldiz, jokalariek badaude, gustura entrenatzen dira... Giro ona dago eta igarri egiten da.

Zure ibilbidea Elorrioren amaituko duzu?

Hori da asmoa. 19 urteagaz joan nintzenean 23 gazte bueltatuko nintzela uste nuen. 26, 28, 30... Urteak joan dira, ia konturatu barik, baina sasoiak laguntzen badit bueltatuko naiz. ■ J.D.

> Bideoa: www.anboto.org



Irabazten hasi du liga Itsaso Pradera mallabitarrak

Emakumezkoen gomazko paleta txapelketa iaz amaitu zen moduan hasi da. Lehenengo jardunaldian iazko txapel-dunek garaipena lortu zuten. Itsaso Praderak eta Laura Saezek, 30-19 irabazi zieten Goikoetxea eta Semperreri. Partidu ona ez egin arren, neke handirik barik irabazi ahal izan zuten Pradera eta Saezek Abetxukon.

Txapelketako bigarren jardunaldia zapatuan jokatuko da. Lehenengo mailako partidu horiek Mallabian, Zarautzen eta Abetxukon jokatuko dira. 16:00etan hasita, hainbat partidu jokatuko dituzte. ■ A.M.

Esku-hutsik itzuli da Tabirako Kantabriatik

Torrelavega taldearen kontra 75-65 galdu zuten durangarrak. Azken bi neurketak galdu egin ditu Tabirakok eta, ondorioz, EBA mailako azken postuan jarraitzen du. Bigarren itzulia hasi denetik, hiru neurketa jokatu ditu Tabirakok, eta bakarria irabazi du; Zornotzaren aurkako jokatutakoa, hain zuzen. Bihar Universidad de Valladolid taldea hartuko du Tabirakok etxean; 19:30ean hasiko da partidu hori. Aurreko jardunaldian, Zornotzak bere aldetik irabazi egin zion Valladolideko taldeari.

Emakumezkoek, berriz, sailkapenean azkenengo dagoen Obenasaren kontra jokatuko dute etxean. ■ A.M.

San Blas Sariko finala domekan jokatuko dute

Gonzalez-Martin eta Gandiaga II-Antxia bikoteek jokatuko dute 2011ko San Blas Sariko finala. Domekan jokatuko dute finala, 11:00etan, Abadiñoko Tornosolo trinketeant.

Lehenengo finalerdian, Gonzalezek eta Martinek 40-16 hartu zituzten mendean Gordon eta Ugarte. Bigarren finalerdia berdindu joan zen, ostera. Gandiaga II.ak eta Antxiak tanto bateko aldeagaz (40-39) lortu zuten garaipena Uriarte eta Etxeberriaren aurka jokatutako partidant. Gandiagaren pilotakada batek erabaki zuen partida. ■ A.M.

“ Elorriora itzuliko naizen? Sasoiak laguntzen badit hori da asmoa, ibilbidea etxean amaitzea ”

Lehenengo postuetan mantentzeko borrokan

Lau partida galdu ditu Kulturalak Tabiran. Sestao Riverren aurkako partida zaletuen berotasuna eskertzeko aukera polita izan daiteke



Partidu lehiatua jokatu zuten Kulturalak eta Santurtzik. Kepa Aginako

Domekan partidu erakar-garria ikusi dezake Tabirara hurbiltzen denak. Kulturalak ligako bigarren sailkatua hartuko du etxean; Sestao River, hain zuzen ere. Ikuskizun ona izateaz gainera, partida erabakigarria ere izan daiteke, beraz. Domekan irabaziz gero, bigarren postutik puntu bakarrera geratuko da Kulturala. Joaneko partiduan Kulturalak 1-2 irabazi zuen; Sestao River mendeku gosez etorriko dela aurreikusi liteke. Orain artean, etxean baino hobeto moldatu dira Tabiratik urrun Intxaurragearen mutuilak. Izan ere, jokoan egon diren 33 puntuetatik 26 lortu dituzte; etxetik kanpora ligako talderik onena da Durangokoa. Ezin daiteke esan etxean txarto dabilenik taldea, baina jasandako bost porrotetatik lau etxean jaso dituzte. Argi dago, beraz, non dabilen sendoago Kulturala.

Durangoko Kulturalaren azken biktima Santurtzi izan da. 23. jardunaldian jokaturiko partiduan 0-1 gailendu zen talde durangarra. Lehenengo zatia amaitzeaz zela, Eneko Gorroñok sarturiko golari esker Durangoko Kulturalak hiru puntuak lortu zituen. Bigarren zatian aurrera egin zuen Santurtzik eta berdin-

Domekan irabaziz gero, puntu bakarrera izango du bigarren postua

Gorroñoren golari esker, 3 puntuak ekarri zituzten Santurtzitik

keta lortzen saiatu zen; 62. minutuan Basauri atezainak bere trebezia erakutsi behar izan zuen. Kulturalak 10 jokalarirekin amaitu behar izan zuen partidua, gainera; 86. minutuan Muxik bigarren txartel horia ikusi zuen. Hala ere, emaitzari eutsi eta hiru puntuak ekartzea lortu zuen Kulturalak.

Bestalde, gainerako mailei dagokienez, denetarik egon da. Ohorezko mailan, Berrizek porrot latza (0-4) jaso zuen etxean San Pedrorren aurka; azken postuan jarraitzen dute berriztarrek. Goren mailan, ostera, Elorriok 5-2 irabazi zion Ortuellari; garaipen horri esker, lehenengo postuetan jarraitzen du Elorrioko taldeak. Lehenengo erregionalean, berriz, lurretakok 2-1 irabazi zion Berriatukori; Zalduak husna berdindu zuen Ibarsusirekin. ■ A.M.

640 kilora arteko finala jokatuko du Abadiñok

Edu Mendizabal entrenatzaileak Abadiño, Sokarri eta Ibarra ditu irabazteko favoritotzat

Bihar 640 kilora arteko txapelketako finala jokatuko da Zeberion. Abadiño sokatira taldeak txapelketako sailkapen fasean hirugarren amaitu ondoren lortu du finalerako txartela. Abadiño-gaz batera, Arrigorriagako Sokarri eta Ibarra taldeak ikusten ditu favorito Edu Mendizabal entrenatzaileak. Pisurik

Abadiñarrek hirugarren txartela lortu zuten finalean lehiazeko

astunenaren txapelketan, 680 kilora artekoan, hiru talde hauek osatu zuten podiuma. Hirurak momentu onean daudela esan daiteke, beraz.

Ezpeletan jokatu zen sailkapen faseko lehenengo jardunaldia. Bertan, 5. postuan amaitu zuen Abadiñok. Bigarren jardunaldia, berriz, hobia izan zen Mendizabalen taldearentzat. Ibarra jokatu zen kanporaketa honetan, lehenengo postuan amaitzea lortu zuen Abadiñok. Honenbestez, hirugarren postuan sailkatzea lortu zuten.

Zeberion tiraldi gehien irabazten dituen taldea izango da txapelketako garailea. ■ A.M.

Iker Saenz de la Cuesta
• Areto futbol entrenatzailea



Epaileen egoera

Adituarentxokoa

Batzuetan epailea, besteetan zigorkaria, baina gutxitan maitatua. Areto-futbolak euren beharra du, baina gero eta gutxiago dira euren denbora eta gogoia areto-futbol partidua gidatzeko jartzen dituztenak. Horren ondorioak denok ordaindu beharko ditugu (gero eta maila gutxiago geratzen diren artean: partiduen atzerapenak arbitroen premiagatik, haien lanagatik gehiago ordaintzeko beharra...), baina areto-futbolaren inguruan gabiltzanak gutxi egiten dugu epaileen irudia hobetzeko.

Arbitroen batzordekoek ikastaro berria antolatu dute (dohainik), eta dagoeneko 11 lagunek hasi dute euren prestakuntza; hauei beste 3 pertsona gehitu behar dizkiegu, denboraldiaren hasieran izena eman zutenak. Beraz, datorren urterako 14 epaile berri lortuko dira, gaur egun daudenekin alderatuta, ehuneko hogeitaz handituz.

Areto-futbola ez dago egunkarietan egunero irakurtzen dugun "krisialdi" hitzetik salbu, baina kasu honetan ez dira langileak soberan, alderantziz, areto-futbolak jende langilea, konprometitua eta zintzoa behar du lehiaketa indartzeko. Hau ez da lanpostua lortzeko iragarkia, ordaintzen dutenarekin ezin delako bizi, baina aukera polita da kirola gustuko duten pertsonentzat.

Nire aldetik, nahiz eta askotan epaileak kritikatu, esan beharrean nago haien partaidetzarik gabe areto-futbola ez litzatekeela areto-futbola izango. Irakurleok epaile izatera animatzen zaituztet, eta epaileoi nire eskerrik beroena ematen dizuet.

Egoitz Murgoitio munduko onenen artean

Hirumet taldeko Egoitz Murgoitio 21. postuan geratu zen Alemaniako Sankt Wendel hirian jokaturako Munduko Kopan. 20 onenen artean sailkatzea zuen helburu; emaitza ona da, beraz. Urtarrilaren 30ean jokatu zen proba garrantzitsu hori, zirkuitu bizkor eta deseroso batean; izotzak proba zaildu zuen, gainera. Hirumetekoaren ekinaldia oso erregularra izan zen, hala ere, izan zuen oztoporik ere: zazpigarren itzulian zela, erori eta postu batzuk atzera egin zuen Murgoitio abadiñarrak. Lasterketa Stybar txekiarrak irabazi zuen.

Emaitza onak ikusita, Hirumetek denboraldia luzatzea erabaki du

Bestalde, Dani Ruizek ere emaitza polita lortu zuen; 23 urtez azpikoetan 38. postua lortu zuen. Hamar postutan hobetu du bere iazko marka. Azkeneko emaitza horiek eta taldearen sasoi ona ikusita, denboraldia luzatzea erabaki du Hirumetek; Belgikako Ekloo eta Vorselelaren Superprestigioan arituko dira otsaileko bigarren asteburuan. ■ A.M.

Agenda

FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Sestao
Domekan, 17:00etan, Tabiran
LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)
Zaldua - Leketitio
Zapatuan, 17:45ean, Solobarrian
HIRUGARREN ERREGIONALA
Extremeno - Sondika
Zapatuan, 18:00etan, Tabiran
Zaldua B - Ezkurdi
Zapatuan, 15:30ean, Solobarrian
Berriz B - Elorrio B
Domekan, 11:30ean, Berrizburun
LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)
Iurretako - Arratla
Domekan, 16:30ean, Larrakozelain
BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)
Elorrio - Paudarrak B
Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

ARETO FUTBOLA
EUSKAL LIGA
Mallabia - Gernika
Domekan, 17:30ean, Zaldibarko kiroldegian
Kurutzlaga - Tolosala
Zapatuan, 19:15ean, Landako kiroldegian

SASKIBALOA
EBA MAILA
Tabirako - Unibersidad de Valladolid
Zapatuan, 19:30ean, Landako kiroldegian
LEHEN MAILA (emakumeak)
Tabirako - Obenasa
Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

Gremioen gida

PINTURAK

Pinturas Sagasta Pinturak

APANGARRIA ETA INDUSTRIALA

- Fabriketarako proiektu bereziak (impermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
- Era guzietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tuberiak, etxebizitzak, ...)

Sagasta auzoa • Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO • Bizkaia
Tel.: 629 143 944 - IBAI URIEN

ELEKTRONIKA

URBASA ELEKTRONIKA TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEA - IRKATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com

Panasonic

Televis
Instalazioak
Ofiziala

ITURGINTZA

berriozabaleta

Gasa • Berokuntza • Iturgintza

gremioen koordinatzailea
jose miguel acedo

mug.: 609 381 887 • tel./fax: 94 623 18 55
berriozabaleta@yahoo.es
48230 Elorrio (Bizkaia)

ARGIZTAPENA

ARGIZTAPENAREN
MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



DEKORAZIOA

Diseinua - Dekorazioa - Ideiak - Proiektuak 3D
Legalizazioak - Erretformak - Gremioen
koordinazioa - Altzariak - Osagarriak

a-metz
barne diseinua

linInterior

Ibaizabal, 3A behea • Tel.: 94 681 84 81 • www.a-metz.com

Solaguren Kalea 3 • ABADIÑO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 03 74
URRUTIA-ERRETORES SA

urutiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENAK

GARBIKETAK

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfombrak

Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 6/15 79 12 15

AROTZERIA

EGUIA s.l.
AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tabiara kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com



Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

LORAZAINTZA

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

ERAIKUNTZA

arlax

ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Baserriak eta etxebizitzak
berrizatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

Barrualdea diseinatzea

Tellatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B DURANGO Sakelekoa: 615 77 91 70
605 77 03 57

Arriandi ITURGINTZA

Klimatizazioa
Kalefazioa
Iturgintza
Gasa

Arriandi, 16 - behea, 3. atea
Mugikorra: 607 24 58 54
Faxa: 94 681 61 58
48215 Iurreta

Baimendun instalatzailea

AMALURRA >



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Konpostaje ikastaroa antolatu dute berriro Berrizen, otsailerako

Iraileko ikastaroan taldeak bete egin zirenez, kanpoan geratu zen jendearentzat beste ikastaro bat antolatzea erabaki dute

Udaletxeko lorategian ipinitako konposta-ontziak zabaldu eta irailetik sortutako konposta ikusiko dute

Berriz Maite Dugulako taldearen ekimenez eta udalaren laguntzaz antolatu dute ikastaroa

Otsailaren 16an eta 17an konpostaje ikastaroa egingo dute Berrizen, Berriz Maite Dugulako taldeak eta Berrizko Udalak antolatuta. Iazko irailean ere antolatu zuten ikastaroa, eta 36 lagunek parte hartu zuten. Taldeak bete zirenez, jendea ezin parte hartuta geratu zen, eta orain bigarren ikastaroa antolatzea erabaki dute.

Lehen ikastaroko partaideek hileotan konposta egiten jardun dute udaletxeko lorategiko konposta-ontzietan eta etxe partikularretan. Iraileko ikastaro hartan Paco Sainz EHNEko teknikariak gidatu zuen ikastaro teoriko-praktikoa, eta oraingoan ere bera izango da gidari.

Irailean, lehen ikastaroa egin zutenean, udaletxeko lorategian konposta-ontzi bi ipini zituzten. Otsaileko ikastaro honetan konposterak zabaldu eta hileotan sortu den ongarria ikusteko aukera izango dute

bigarren ikastarokoek; baita lehenengo txandakoek ere.

Izena emateko

Antolatzaileek ikastaroa talde bitan emateko asmoa dute. Goizekoa 10:00etatik 13:00etara izango litzateke, eta arratsaldekoa 16:00etatik 19:00etara. Izena emateko udaletxean galdetu edo berrizmaitedugulako@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

Herriko hondakinak, nora?

Berriz Maite Dugulako taldea zaborraren kudeaketaren gaineko hausnarketa herrian zabalitzen dabil iazko maiatzetik. Konpostaje ikastaro hauek hausnarketa prozesu horren barruan daude.

Gorka Camara ezker abertzaleko zinegotziak hondakinen inguruko arduraren arrazoia azaldu du: "Berrizen eta inguruko herrietan zaborraren inguru-

ko ikuspuntu zaharkitua daukagula konturatu ginen". Hondakinen kudeaketari buruzko informazioa eta alternatibak gainera zabaltzen hasi ziren orduan: "Sistema egokiena zein den hausnartzeko informazioa eman dugu. Berriztarren nahietatik abiatuta, astiro-astiro pausuak ematea da asmoa".

Herri bakoitzak bere zaborra kudeatzea da Berriz Maite Dugulako taldearentzat sistemarik egokiena. Gipuzkoako hainbat herritako atez ateko bilketa lako sistemak eredu garriak dira, Camararen ustez: "Ikastaroko parte-hartzaileei eta herritarrei hondakinen bestelako kudeaketa egingarria dela azaldu gura diegu; ez dela utopia bat". Konpostaje ikastaroaren ondoren, martxoan hasieran, atez ateko zabor bilketa bertatik bertara ezagutzeko Usurbilerako irteera antolatuko du Berriz Maite Dugulako taldeak. ■ A.U.

INMOBILIARIAK >



AMBOTO
INMOBILIARIA
San Agustinale, 4, 1. ezk - 48200 DURANGO
Tel.: 94 681 35 62 • email: iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- Askatasun Etorbidea: 3 logela, egongela, eskegitokia eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. Zatoz ikustera.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 700€ hilero. EZ GALDU AUKERA HAU.
- Erdialdea: AZKENEKO APARTAMENTUA. Logela bat edo bikoak, sukalde jantzia, komuna eta horma-armairuak. Edo nahiago baduzu alokatzen dizugu.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Ganbara eta garajea.
- Erdialdean. 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizatzeko. Zonalde onean kokatua.
- Plateruen Plaza: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela. Ganbara eta garajea.
- Alluitz: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara.
- Askatasun Etorbidea: Eraikuntza berriak. 2, 3 eta logela bakarrekako. Durango erdialdean.
- Zeharkalea: Atikoa. Guztiz berriztatua. 2 logela, sukaldea, egongela – jangela eta komuna.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak. Berehalako banaketa.

BERRIZ

- Logela, sukalde “amerikarra”, egongela eta komuna. Berria estreintzeko. 96.000€ .

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, bainugela, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du.

TXALETAK SALGAI

URRUTXUA

- Baseria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

DIMA

- Baseria salgai. 4.000 m2-ko lursaila. Balzolakoa kobetatik gertu.
- Baseria salgai. Hektarea bateko lursaila. Indusi zonaldean.

MALLABIA

- Trabakua: Baseria. 140m2 solairuko. 20.000 m2-ko lursaila. Durangotik 10 minutura.

OTXANDIO

- Guztiz berriztuta dagoen baseria. 3 solairu, sukaldea, egongela – jangela, 2 komun, 3 logela, egongela eta atikoa.

ABADIÑO

- Mendiola. Bifamiliarra. Eraiki berria. Estreintzeko. Informazio pertsonalizatua.
- Bifamiliarra. 4 logela eta 3 komun. Garajea, trastelekua – txokoa. Lorategia barbakoearekin. Leku onean kokatua.

ELORRIO

- Jaral de Bedoya. 240 m2-ko txaleta eta 200 m2-ko lorategia. Garaje bikoitza, txokoa, sukalde eta egongela handiak, 4 komun, 4 logela bikoitz eta terraza. Banaketa. Sotoa: Bi kotxerentzako garajea eta txokoa jantzia. Beheko solairua: Sukalde handia estreintzeko, egongela handia eta bainugela. Lehenengo solairua: 3 logela bikoitz eta 2 komun. Bigarren solairua: Komuna hidromasajearekin, egongela printzipala (suite) eta terraza.

GARAI

- Adosatua salgai. Estreintzeko. Leku ezin hobean kokatuta.



